

## Autopsiak egiaztatu du hil aurretik bortxatu egin zutela Aintzane Garai

Barrikako neska gaztearen hilketak dolu agerpen ugari eragin zituen atzo; Udalak, Eusko Jaurlaritzak eta Eusko Legebiltzarrak gertatutakoa gaitzetsi zuten

ERREDAKZIOA - BILBO Aintzane Garai zena labankadaz hil zuten eta sexu-erasoa jasan zuen, Bizkaiko Auzitegiko patologia zerbitzuko medikuek gorpuari egindako autopsiak egiaztatu duenez. Autopsiaren inguruan ezagutu diren emaitzen arabera, Barrikako (Bizkaia) gaztea odolustuta hil zen, hiltzaileak eman zizkion labankaden ondorioz. Hil aurretik neska bortxatu egin zuten.

Ertzaintzak jakinarazi du bestalde, atxilotuta daukatela oraindik, hilketarekin lotura izan dezakeelakoan, astelehenean Gernikan (Bizkaia) atzeman zuten M.H.B. 24 urteko gaztea, Aintzane Garai zenaren mutil-lagun ohia alegia. Horrez gain, mutilak Bilbon duen etxebizitza miatu zuen atzo Ertzaintzak, kasuaren ardura daraman Gernikako Auzitegiko epailearen aginduz. Era berean, gaztearen autoa miatu eta aztertu zuten polizia. Kasu honetaz Ertzaintzak ez du besterik adierazi nahi izan. Atxilotu zutenetik 72 ordu igarotzen direnean M.H.B. epailearen esku utziko duela agindu du. Aintzane Garai zenari gaur egingo diote hileta-elizkizuna jaioterrian, 18:00etan. Hilketak honek dolu agerpen ugari eragin zituen atzo. Barrikan xingola beltza ezarri zuten udaletxean eta Udaleko talde guztiek hitzartutako gaitzespen agiria kaleratu zuten, besteak beste elkarretaratze isila deituz iluntzerako. Agirian Barrikako Udalak hilketak gaitzetsi zuten eta Aintzane Garaiaren senitartekoei elkartasuna adierazi zien. «Hilketak honen eta gisa honetako izugarrikerien kontra gizartearen arbuio eta gutxiespena nahiz Justiziaren jardun sendoa aldarrikatu behar dira». Udal agintariak gertaerak argitzeko abian jarriko dituzten ekinbide legal guztietan laguntza eskaini diete familiari.

Senitartekoen eskaera Gaitzespen agiria hori ezagutzera emateko Udalak egindako agerraldian hitza hartu zuen David Garai hildakoaren nebak. Familiaren izenean esker oneko hitzak eduki nahi izan zituen arrebaren auzian lagundu dieten guztientzat. Ertzaintzari arreba zuenaren gorpua topatzeko eta hilketak argitzeko hasi dituen ikerketetan egindako ahaleginak eskertu zizkion. Esker onak adierazi zizkien baita ere Babes Zibilari, eta Bakio Barrikako udalei eta udaltzainei.

Bestalde, duten samina errespetatzeko eskatu zuen David Garaik: «Gure mina errespetatzeko eskatuko nizueke. Zaila da atsekabe honi eustea, baina zailagoa izango da estutzen bagaituzue». Kazetariari zuzendu zitzaizen zuzenean: «Ertzaintzak esaten digunaren zain gaude, senitartekook zuek beste dakigu». Eusko Jaurlaritzak eta Eusko Legebiltzarrak, beren aldetik, Aintzane Garaiaren hilketak gaitzetsi dute, bai eta lehengo astean Barakaldon (Bizkaia) gertatutakoa ere. Miren Azkarate Jaurlaritzako bozeramaileak gogor txarretsi zituen atzo hilketak biok. Gobernu Batzordearen bilera amaitutakoan egindako agerraldian, agintarien gaitzespenik irmoena adierazi zuen. «Aintzane 26 urte zituen, eta baten batek modu kriminalean ezabatu duen bizitza proiektu oso bat aurretik». Azkaratek azaldu zuenez, Ertzaintza jazotakoa hasiera-hasieratik ikertzen dabil eta bere ustez datozen orduotan jakingo dute zer gertatu zen, zergatik eta nork egin zuen hilketak.

Deia herritar guztiei Emakumeen kontra bideratutako indarkeriaren aurrean, Eusko Legebiltzarrak jarrera sendoa eta eraginkorra hartzeko eskatu die herritar guztiei. Agirian idatziz bakarrik ez. Legebiltzarraren Mahaiak genero indarkeriaren kontrako elkarretaratzea egin zuen jazotakoa salatzen. Protestaldia eguerdian egin zuten, Legebiltzarraren atarian.

Izaskun Bilbao Legebiltzarreko lehendakariak irakurri zuen denen artean idatzitako agiria:

«Milaka emakumeei kalte egiten dieten gertakariok ez dira gure egunerokotasunetik edo gizartetik urrun eta aparte geratzen direnak». «Hilketak genero indarkeriaren adierazpenik bortitzena badira ere, egunero-egunero gertatzen dira emakumeen kontrako bestelako jazarpen txikiagoak. Eraso horiek guzti-guztiak gaitzetsi eta salatzen ditugu».

(BERRIA egunkaria)